

Zuzendariari

BERRIAK irakurleen eskutitzak plazaratzen ditu. Ez dituzte 2.500 karaktere baino gehiago izan behar, tarteak barne, eta **BERRIAK** moztzeko eskubidea du. Helbide honetara bidali behar dira, izen-abizenak eta herria adierazita: Berria, Martin Ugaldel kultur parkea, 20140 Andoain. Eskutitzak Internet bidez bidaltzeko: iritzia@berria.info.

Errege ekarpena

Tronpatu esaten diogu okertzeari, hanka-sartzeari, batez ere ekialdeko euskalkietan; orobat, bigarren adiera bat dauka tronpatu aditzak: iruzer egin, engainatu. Horra hor Agostin Xaho zuberotarrak idatzitako *Azti Begia* liburuan: «(...) populiak harthu behar du letzione. Tronpatu izan da populua (...)» Hegoaldeko euskaldunok nozitzen dugun errege jardueri esker, izugarri zabaldu da tronpatu aditzaren erabile-

ra, Euskalerrri osora zabaldu ere. Elefante tronpadunak hiltzera joan zen Corina zu Sayn-Wittgenstein printzesarekin eta han, Botswanan, goizaldeko ordu txikitik, tronpatu zen. Erorikoa izan eta handik gutxira, ospitaletik ateratzean, hala aitortu zuen, sisi-basa: «Tronpatu naiz eta ez da berriz gertatuko». Aitzitik, hiru hilabeteren buruan, erori egin da berriz ere; oraingo honetan ez zegoen printzesa alemaniarrekin —Madrielen zuen habia utzita, Luxemburgera bizitzera behartuta, nonbait—, militarrez inguratua baizik eta, halere, oraingoan

ere muturreko ederra hartu du borboitarrek, eta odol urdinaz gainera, orain sudurra eta kokotsa ere urdin-ubeldua dauzka. Eta ez ahantzi iragan den azaroan ere begian ubeldura handi bat zuela agertu zela, Zarzuela jauregian izaniko istripu bat zela kausa; orduan ere tronpatuko zen, nonbait.

Gainera, eroriz eroriz ikasten da oinez, dio esaera zaharrak, baina ziur naiz borboitarrek ez duela euskal atsotitzik eza gutzen, ezta ezagutu nahi ere; jarrai dezala, beraz, tronpaz beteriko bere bidetik, eta jakin dezala bere safari,

abentura eta kalenturei esker, gure hizkuntzan aditz trinko berri bat dibilela hitzetik hortzera, udako jaietan arrakasta handikoa, edozein herriko jaietan (sic) sortua. Hartara, ni tronpatzen ari naiz perifrastiko luzea erabili orde, ni datronpat; hortaz, zu datronpazu, eta Juan Carlos erregea datronpa, gu datronpazu, zuek datronpazue eta haiek datronpate; eta lehen aldiak? Erraza; ni netronpan, zu zenetronpan, eta borboitarra zetronpan... gu, zuek eta haiek aditz forma trinkoak osatzea, irakurlearen esku.

Esan gabe doa, Espainiako erregearen erorikoak ikustean, monarkiaren erortze metaforikoa ikusten dugu askok.

Josu Jimenez Maia.
Idazlea.

‘Parot doktrina’: Estrasburgoren ondoren zer?

Jon M. Landa

Zuzenbide penaleko irakaslea
EHUn

Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegiak 2012ko uztailearen 10eko epai baten bitartez (Del Rio Prada v. Spain) *Parot doktrina*-ren ezarpenaren aurka gogorjo zuen. Auzitegi Gorenak, 197/2006 Parot-Epaia dela medio, presoaldiaren gehienezko muga betetzeko neurketa-irizpidea aldatu arren eta, horren ondorioz, preso askoren kasuetan kalera atera ez baizik eta 10,9 edota antzeko epez kartzelan egoteko aldia luzaturik gertatu ondoren, Estrasburgoko Auzitegiak hori ezin dela egin aldarrikatu zuen. Zehatz-mehatz Europako Giza Eskubideen Itunaren bai legezketasun printzipioa (7 art.) bai askatasun-eskubidea (5 art.) urratutaz jotzen ditu. Alegia, Espainiako Estatuak giza eskubideen aurka jo zituen, argi eta garbi, *Parot doktrina* aplikatzerakoan.

Estrasburgoko epaia berri ona da: epaimahaietatik datorren haize freskoa aspaldiko partez. Baina askok beren buruari galdegiten diotena zera da: eta orain zer? Noraino izango du epai horrek eragina? Bete ko al dute Espainiako Auzitegiak?

Egoera konplexua da baina azter ditzagun hipotesi desberdinak. Lehenik eta behin, Estrasburgoko eman duen epaia ez da irmoa. Eta irmoa ez bada, ez dago bete beharrik. Hiru hilabete epea dago aldeek kasua

Ganbera Handira (Grand Chamber) bidalia izan dadila eskatzeko. Espainiako Gobernuak jada esan du hori eskatuko dela, irailan hain zuzen ere. Baina eskatzeak ez du esan nahi halabeharrez Ganbera Handira joango denik: ezta gutxiago ere. Estrasburgok berak iragazki moduan bakarrik onartzen du kasu bat ganbera handira iristea salbuespenez, berarentzat —ez eragina sentitzen den Estatuarentzat— bereziki garrantzitsua denean, Europa mailan beste kasuetan eragina izan dezakeelako. Beraz, ikusteke dago Estrasburgok onartzen ote duen berrikuspena. Onartuz gero, beste erabaki baten zain geldituko gara eta auskalo zenbat denbora pasatuko den epai berria etorri arte.

Baina, kasua Ganbera Handira joatea onartu ezean, nire aburuz litekeena, agian urrian edo azaroan —ziurrenik urtea amaitu aurretik— jakingo dugu eta orduan bai epaia irmoa izango litzatekeela. Irmoa, hortaz, bete beharkeoa Espainiako Gobernu eta Estatuak erakunde guztientzat.

Bete beharkeoa, alegia? Betezteak ez du esan nahi presoak kalera segituan doazenik: irmotasunak pilota, kasuaren konponbidea, Espainiako Auzitegiatara bihurtzen du eta orduan hipotesiak ugaltzen dira. Izan ere, ez baita ebatzi, Estrasburgoko Epaimahaiaren aldetik, diruzko kalte-ordainak ematea soil-soilik. Ohikoa ez den kondenan presoak «ahalik eta lasterren

askatzeko» agindu zaio Espainiako Estatuari. Kondena bat Estrasburgotik datorrenean askotan ez dute kalte-ordainik ematen, jada kondena bera nahikotzat jotzen dutelako. Baina oso muturreko kasuetan haratago doaz: eta kasu honetan hori egin dute. Askatzeko agintzeraino joan dira! Ezohiko kondena honek arazo bat sortzen du Espainian halakoen aurrean zer egiterik araututa ez dagoelako. Eta garbi araututa ez dagoenez gero, hipotesiak ugari dira.

Hala nola Del Rio kondenatu zuen Auzitegi Nazionalak erabaki lezake kalera ateratzea epaiari men eginez eta horrela beteta legoke. Baina, baita ere, erabaki lezake kontrako edota horrez gainera bere burua erditik kendu eta kasua Auzitegi Gorenari igorri azken horrek erabakia har dezan. Hori gertatu zen Bulto izeneko antzeko kasu batean (245/1991 Konstituzio Auzitegiaren Epaian). Estrasburgok askatasuna agindu arren, Espainiako Auzitegi Gorenak ez zuen bete. Kasu horretan azkenik Konstituzio Auzitegiak behartu zuen kalera ateratzea Auzitegi Gorenaren aurkako tentsio biazan. Eta hori izan liteke orain berririo ere gertatzea: alegia, Espainiako Auzitegi arruntek epaia eta kondena ezohiko argi hura ez balego bezala jardun eta orduan Konstituzio Auzitegiak gatazka erabaki behar izatea.

Auzitegietatik at, bide batez, esan beharra dago gobernua berak ere konpon lezakeela, borondaterik balu, indultu baten bitartez. Barra-barra erabiltzen den indultuak, askotan gehiegi-

keriaz batez ere Estatuak funtzionarioak —poliziak batik bat— indultatuak direnean, kasu honetan auzitegien korapiloa askatzen lagun lezake.

Norbaitek esango du, honez, baina zergatik dena da hain konplikatu? Erantzuna zera da: Bulto kasua gertatu zenean, jada Konstituzio Auzitegiak argi eta garbi utzi zuen zulo bat zegoela eta arautu beharra zegoela hori estaltzeko: alegia, Estrasburgok erabakitzen dituen kasu bereziotarako kartzelatua nola askatu behar den.

Baina Estrasburgoko Auzitegi epaiaren indar historikoa hori izan da: Giza Eskubideen izenean gutxieneko batzuk «nagusitasun moralaz» ezartzen dituela. Espainiak, berak izenpetu duenaren aurka eginez, beteko ez balu, legitimitate moralak galduko luke

Esan arren, ordea, ez zitzaion kasurik egin eta orain dena konplika liteke berririo ere.

Dena dela, nola edo hala bete beharko du Espainiak. Horretarako, ministroen kontseilu bat dago Estrasburgoko Itunak sortua, presio politikoa eragingo duena betearazteko. Kontseilu horrek bere bileretan baieztatuko du ea ordaintzen den irmotasuna aldarrikatu eta hurrengo hiru hilabeteetan eta bestela interesak sortzen hasiko dira. Kontseiluak ere bereziki behartuko du ea askatzen duen Del Rio baita antzeko egoeran egon daitezkeenak ere. Eta bitartean, arazoa konpontzen ez den bitartean, kondena gehiago etorriko dira tantaka edota uholdeka.

Hori bai, ikuspegi juridikoa gorabehera, eta betetzeko luzamendutan balebil Espainia eta kasurik muturrekoen batez gabe utziko balu, zelako desprestigio itzela! Estrasburgok askotan arrazoia besterik ez du ematen edo hobeto esanda arrazoia ematen du, gutxi ez dena. Ez doa urrunago, askok urrunago joatea nahiko bagenu ere. Baina bere indar historikoa hori izan da: Giza Eskubideen izenean gutxieneko batzuk «nagusitasun moralaz» ezartzen dituela. Espainiak, berak izenpetu duenaren aurka eginez, beteko ez balu, legitimitate moralak galduko luke baita demokratia berari kalte handia egingo ere. Terrorismoaren aurkako borrokan behin eta berririo inbokatzen den «nagusitasun moralak»-ri eusteko unea heldu da, izan ere nagusitasun moralak eta demokratikoak *Parot doktrina* indargabetzeko eskatzen du-eta!